

[b]

BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

577. zkia.

XIV. urtea

2006ko ekainaren 23a

Ane Guilló, Guatemalan laguntzaile

«Guatemalako populazioaren
%82a pobrezian bizi da»

Udal Euskaltegira goaz. Bazatoz gurekin?

Vamos al Euskaltegi Municipal, ¿te apuntas?



2006 UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

www.udaleuskaltegiak.net

DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatea
Nafarroa, Enparantza 2 · ELGOIBAR
Tel.: 943 74 27 31
e[mail]: euskal@udal.gipuzkoa.net
Ordutegia: 8:00-14:00

EGA AZTERKETA PRESTATZEKO
IKASTARO BEREZIA
Uztaila-Iraila

EUSKALDUNTZE MAILA GUZTIAK /
HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK
Uztaila

udako
ikastaroak

matrikula
zabalik

Km.0 eta aukerako autoen erakusketa handiena ELGOIBARREN

Europear Bermearekin



180 MARKA GUZTIETAKO 180 AUTO ERAKUSKETAN
4x4, industrialak, coupeak, monobolumenak, berlinak, familiarrak...

“Tom Tom” Nabigazailea
OPARI



AUTO GARBIKETA
DOAN

UZTAILAK 1
Goizean 10:00 - 14:00
Arratsaldean 16:00 - 19:00

UZTAILAK 2
Goizean 10:00 - 14:00

km.0 **Giauto**
943748598

Aukerako Autoak

Tel. 943 74 85 98 Faxa: 943 74 85 99 · Pol. Olaso, 25 ELGOIBAR · vomendaro@giauto.es



ALAIN ULAZIA

Gutako bat hiltzen den bakoitzean, zer-bait hiltzen da guztion barrenean, baina guztiz hiltzen ez garenez gero, hiltzen gara behin eta berriro.

Alaitz,

Lehenago lagun baten anaia hil zen istripuz. Eta egoeraren baitan lagun batek zera esan zuen, heriotzaz zeinen gutxi dakigun, zeinen herio kultura aldrebesa dugun. Tabua da. Justu orduan, heriotzari buruzko liburua bat irakurtzen ari nintzen, Edgar Morinen "Gizona eta Heriotza". Norbaitek zera esan zidan aste bat lehenago gure sukaldeko mahaian liburu hori ikusi zuenean: "hori utzi ta hobe dek Gizona ta Bizitza irakurri".

Herio kultura ezberdinak daude, Grezian suizidioa ondo ikusia zegoen (agureek bere buruaz beste egiten zuten Suizidioaren Amildegitik beste mundura iragateko), Japonian ere bai. Hemen berriz, koldarkeria da suizidatzea. Liburu horrek finean gauza bat irakatsi dit: bakoitzak bere herioa darama. Herioari zentzurik ez, baina hitz eder batzuk topatu ditut Kimen Uriberen poema honetan:

ITZUL EZAZUE

Eta hego haizeak eramango nauen egunean

Itzul ezazue ene gorpua sorterrira,
Ehortzi itsasertzeko adiskideen hilobian,
Gogo oneko jendez inguratutik:
Arrantzalearekin (baserritararekin),
Drogazalearekin,
Idazlearekin.

ZOZOAK BELEARI...



ALAITZ VIVES

«Heriotzaz
zeinen
gutxi
dakigun»

ALAIN

«Isiltasuna da
nagusi herioa
dabilen
lekuan»

ALAITZ

Heriotza isila da. Isiltasuna da nagusi herioa dabilen lekuan. Negar malkoak, ez-tarriak urratutako garrasiak, isilak dira. Traje ilunak, begi gorrituak, begirada galduak ikusi daitezke, baina entzun... zer entzuten da hutsunea nagusitzen denean? Nik ez dakit Alain.

Kandelak, izara zuria, agur maria graziaz betea, intsentsu usain sarkorra, jauna da zurekin, loreak, bedeinkatua zara zu andre guztien artean, malkoak, auzokoen dolumina, eta bedeinkatua da zure sabeleko fruitua, jesus, elizako ataria, hartzazu jauna, hil hau zervan, betiko bizi lekuan...

Artean neska koskorra nintzela, etxekoekin behin edo behin izana naiz kanposantuan, hilobiak txukundu eta loreak ipintzen. Han zeuden amaren aitona-amonak, inoiz auzoko izan zirenak... Ama eta izebaren batek hilarria garbitu eta lorak atontzen zituzten bitartean nik han eta hemen begira pasatzen nuen denbora, hilarrietako izenak irakurri "ama, ta gizon hau zeintzan ba?" galdezka eta beteta zeuden nitxo apurretako argazkiei begira.

Orduko neska koskorarentzat, bizia zegoen hilobi haietako bakoitzaren azpian; hantxe, lurrera itzuli zenaren bizitzaren haria.

Ez naiz aspaldi joan, izen ezagun gehiegi daude orain hilarrietan, eta nigan biziraute duen neska koskorak ez du bizitzaren hariaren muturrik aurkitzen han. Hutsunea baizik.



HILTZEA EZ DA EZER; IZUGARRIAGOA DA EZ BIZITZEA



Victor Hugo

Eusko Alkartasunaren babes

Elgoibarko Eusko Alkartasunak babes osoa eman nahi dio alderdiko zinegotzi den Jesus Mari Garciari; baita EAJko zinegotzia den Marga Gurrutxagari ere, Einbiou Plataformak etxeetara bidalitako "Jakin ezak/n" aldizkariarengatik eta legealdi honetako 3 urteetan behin eta berriz agertu diren kartelengatik. EAKo ordezkari garen aldetik, ez dugu onartuko Elgoibarko herritarrek aukeratu duten gure zinegotziaren legitimotasun demokratikoa zalantzan jartzea, zinegotzi hori Elgoibarko herritarrek hautatu baitute. Eta are gutxiago; ez ditugu bortxazko eta mehatxuzko jarrerak ontzat emango; horiek duten helburua ez lortzeaz gain, istiluk ekartzen baitituzte gure herriko eta Euskal Herri osoko elkarbizitzara. Horretaz gain, esan dezagun, horrelako jarrerak dituztenak direla erantzukizun guztia dutenak.

Halaber, Einbiouri gogorarazi nahi diogu zinegotziak ez direla kandidatura pertsonal baten ondorioz aukeratzen, baizik eta, alderdi politikoek hauteskundeetarako osatu duten hautagai-zerrenda bati herritarrek ematen dioten babesari esker. Hortaz, zuen erreklamazioak ez dizkiozue gure zinegotziari egotzi behar. Aitzitik, erreklamazio hori EA alderdi osoari egin behar diozue. Gainera, alderdi horrek ez du plataforma hori legez kanpo utzi izanaren erantzukizunik. EAK gure herrian duen zuzendaritza batzordeak honako hau jakinarazi nahi du: Eusko Alkartasuna uneoro herritarren eskubideen zapalketaren aurka agertu de-

la, baita Alderdien Legearen kasuan ere, eta konpromiso horrek justiziarekin arazoak ekarri dizkigula.

Beste behin ere, EAK gure herriaren bilakaeraren eta gestio onaren aldeko konpromisoa aldarrikatu nahi du. Era berean, gure ordezkarien bidez, Udalean elgoibartar guztien alde egiten ari garen lana egiten jarraituko dugula gaineratu nahi dugu. Era berean, honako hau azpimarratu nahi dugu: ez dugula gure zinegotziaren dimisioa onartuko, eta hiru urte hauetan jasaten ari den presioa alde batera utzita, gure herriarengatik egiten ari den lana egiten jarraituzera bultzatuko dugula.

EAK konpromiso garbia hartu du, serioitasunez eta erantzukizunez egindako eguneroko lanaren bitartez Euskal Herriaren eta estatu espainol eta frantsesaren arteko gatazka gainditzeko. Halaber, EAK lanean dihardu, ideia eta proiektu politiko guztiak askatasunez burutzeko eta indar politiko guztiak hauteskundeetara aukera berberarekin aurkeztu ahal izateko. Horregatik guztiagatik honako hau eskatu nahi genioke Einbiouri: hausnarketa orokor honekin bat egin dezala eta gure herriarentzat hain desiragarria eta beharrezkoa den elkarlanetik urruntzen gaituzten bortxazko jarrerak alde batera uztea.

Aupa Mendaror!

Jadanik bi urte baino gehiago pasatu dira Mendaroko Udalak Gazteguneko proiektuan herriko gazteen partehartzea eskatu zuenetik. Proiektu honetan Mendaroko Gazte Asanblada izan zen gure hau dinamizatu eta gestionatzeko prest agertu zen talde bakarra. Hau horrela izanik, Gazte Asanbladari dagokio Gazteguneko solairu bateko gestioa eramateko ardura. Gure proposamena, azken urteotan Mendaroko gazteen nahiaren isla izan den Gaztetxea eraikitzea da.

Egunak, asteak eta hilabeteak pasatzen ostean, oraindik Ludotekan elkartzen jarraitzen dugu, ekitaldiak kalean edo gurek ez diren guneetan egin behar izaten ditugu, azken lau urteotan bezalaxe.

Aspaldi amaitu dira Gazteguneko obrak. Funtzionamendu, ordutegi, zarata eta abarren inguruan luzaro hitz egin eta akordioetara iritsi eta gero, gure galdera hau da: noizko Gaztetxea? Bizi dugun egoerarekin kezkatu gaudela-eta, gaurtik aurrera 19:00etan udaletxe aurrean egingo ditugun kontzentrazioetan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi genizuke. Hitzetatik ekintzetara pasatzeko unea iritsi da. Mendaroko Santa Ana jaiak festa giro alternatiboan ospatzeko Gaztetxea behar beharrezkoa dugu. Gaztetxea orain!

ELGOIBARKO EUSKO ALKARTASUNA

MENDAROKO GAZTE ASANBLADA

E-POSTA


barren@elgoibarkoizarra.com



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



Argitaratzailea:



Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04
Publizitatea: 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILEA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILEAK** Uxue Alberdi, Aitzol Gamendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Alain Ulazia, Aloitx Wies, Kokoe K.E., Urruzuno **ESABIA ZAHARRA** Gotzon Garateren liburutik **INFORMATZAIA** Gertu **TIRADA** 4.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria.

TXALOAK

- Pilar Ikastetxetik Gurasoen Egunerako opari eta trofeoak eman zituzten **erakundeei eskerrak eman nahi dizkiete**: "Tefrika, Mekanosa, Debape inprenta, Galiza Etxea, Benito harategia, GER S.L., Kutxa, BSCH, La Caixa, Barola S.L., Cordon Vilarchao pinturak, Astigarraga kirolak, Urasandi okindegia, Eroski, Dori, Usatorre, Iriondo, Jai-alai, Urkiola tabernak, Urasandi karrozeria, San Pedro jatetxea, Rosa liburudenda, Baskorent, Beristain, Bukatu mekanizatuak, Alfa eskulturak, Intxausti, Txiriboga, Erretegi bo-dega, Txariduna, Madigan, Netto eta Correos".

- **Eskerrak Ana Ansolari guraso eta ikasleen partez**: "Musika Eskolako ikasleak hain ondo zaintzeagatik eskerrak eman nahi dizkizugu. Jarraitu horrela, Ana!".

- **Trinitate Egunean Urasandiko eskailera mekanikoak goizeko 3rak arte egon ziren martxan**: "Eskerrik asko jaietan eskailera mekanikoak gabez ere martxan jarzteagatik".

- **Ikastolako ikasle eta gurasoek euren entrenatzaileak txalotu nahi dituzte**: "6. mailako neska eta gurasoek 4 urte hauetan gure entrenatzaileak izan diren Jon Sanchez eta Joanes Rodriguez eskertu eta txalotu nahi ditugu, gurekin izan duten pazientziagatik. Eskerrik asko, benetan!".



KEXAK

- Herritar batek esan digunez, **Trinitate Jaietako feriare ostean ez zuten Plaza Txikia ondo garbitu**: "Trinitate jaietako ganadu eta barazki feria ederra izan zen benetan, gustura ikusi genuen, baina egun dezente pasatu ondoren ere, usain txarra zegoen ingurune honetan. Feria egitea ondo dago, baina feria bezain garrantzitsua da lurra ondo garbitzea, bestela, Plaza Txiki inguruko bizilagunok jasaten ditugu kalteak".



- **Elgoibartik Maltzagara doan oinezko bidea oso egoera txarrean dago**: "Denbora asko pasatu da Sigma eta Maltzaga arteko obrak bukatu zirenetik, baina bidea oso egoera txarrean laga dute. Jende asko ibiltzen da ingurune honetan pasiaran, ama asko umeen aulkiarekin joaten dira, eta bideak konpontzeko beharra dauka".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Tel: 943 74 10 11

IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.
ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. **AZTERKETARIK GABE!**
IZENA EMATEAN %10EKO BEHERAPENA

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Batoz informazio eske!



URRUZUNOREN
Luma

Zuberoa

Euskal Herriko probintzia galdu hori da Zuberoa, gure maparen erpin-erpinean. Beldurrez begiratzen die gainerako euskal lurri. Esango nuke dela, maitasun gutxi erakutsi diogulako. 14.000 biztanle; gure herrietan adina, baina probintzia osoa populatzeko. Ez da ezer. Ez lanik, ez dirurik, ez baliabiderik. Eta guk erraz hitz egiten dugu Ekialdeko blokeo eta boikot egoerez. Sortu zen Zuberoa Garatzen, eta aitzinera lehen pausoak eman orduko deuseztatu zen. Lotsagabeki, Senpereko lakuaren bestara joaten gara urtero, eta asko egiten dugula ustez itzultzen gara. Deusetarako ez dugu behar. Baina gure mapak ez luke itxura ederrik Zuberoa gabe. Berriki dantzaren berri jasotzera joan gara Maulera. Zelai eder eta osasuntsuak ikusi ditugu bidean. Bide luzea Maulerakoa. Euskara jatorreko afixak errepidean. Etorbide garbiak eta lasaiak. Anie mendia zain ikusi genuen, iristen ari ginelarik. Ongi hartu gintuzten Maulen. 30 bat lagun ari ziren eskola batean dantzari. Zuberoako zamaltzaina esaterako, ohiko edalontziaren inguruan. Baina Zuberoan, ardoz beteriko edalontzia bera ere, tantarik gabe zen...

Ainhoa Lendinez

[ZORTZIKO TXIKIAN]



GLORIA RUIZ DE GAUNA

GLORIA OKINDEGIKO

Egin al daiteke jatordu bat ogirik gabe?

Bai, noski! jende askok jaten du ogirik gabe eta ez da ezer pasatzen.

Zenbat ogi mota ezagutzen dituzu?

Asko, pila bat daude. Gustu guztietarako ogi motak daude, integralak, zerealduna...

Milioia balio duen galdera: ogiak gizen egiten al du?

Ez, ogi bitartean jartzen denak gizentzen du.

Zer jango zenuke ogi bitartean?

York gaztarekin.

Noizko asmatuko da egun batetik bestera gogortzen ez den ogia?

Ez dakit! ogia izoztuta edo aluminiozko paperean batuta ondo kontserbatzen da hurrengo egunera arte.

Nori emango zenioke ogi gogortua bazkaltzeko?

Maria San Gil-i.

Kafesnea ogi zopekin ala croissanarekin?

Ogi zopekin.

Ogia eta egunkaria falta diren etxean...


Ez da ezer pasatzen, ohitura kontua da.

Bizitzan falta ezin diren osagaiak?

Esnea, barazkiak eta fruta.

komikia

Hil da gero...



Kokoe OGA

[AKORDATZEN NAIZ]



JOSE MARI BETELU

1932an jaioa

«Zinia eta musikia»

Zinera Eibarrera juten giñan. El-goibarren ere bazaguan zinia, baiña Eibarrera lehenago ailegatzen ziran pelikulak, eta hara juten giñan. Neri akzioko pelikulak gustatzen jatazen. Bakeradak zagozen modan, eta nik mordua disfrutatzen naban. Persekuziuekin zine dana zarataka eta tente-tente ipintzen zan. Oso ondo pasatzen gendun.

Guretzako pelikulia benetakua zan, eta halaxe bizitzen gendun. Guk ez genkixan pelikulak zela egitten zi-

ran ere, eta guk ikusten genduna sinisten gendun. Teatorra ez giñan asko juten; guri zinia gehixago gustatzen jakun.

Musikia entzuta ere asko gustatzen jata, musika popularra entzuten dot, Antonio Machin eta holakuak. Gaur egungo gitarreo zarata hori etxata gustatzen. Askotan seme-alaberi esaten diuet, gaur egungo musikia, plater mordo bat apurtziak ateratzen daban zaratia modukua dala. Adarra jotzen diuet.



[GURE BERBAK]

Denborazko egitura batzuk: BEHIÑ

Behiñ berbia asko erabiltzen da denporia adierazten deben esaldixetan; batzuetan, -ENIAN atzizkixakin; beste batzuetan -TU EZKERO-rekin; eta bai aditzik gabe ere (hor azpizan, izkutuan daguala, be-tiere). Ikusi daiguzen hiru egitura horretako adibide batzuk:

- 1) Behiñ harek ailegatzen ziranian, ez zan giro izaten.
- 2) (Arrate Irratixa). Len, en kanbio, behiñ Bitorixa aldera pasau ezkeru, ez zan entzuten.
- 3) (Mina zulo bat) Sartzeko, igual lara eukiko dev. Baiña behiñ atakia pasau ezkeru, tente ere ondo juten da, eta hondua garbixa daka.
- 4) Len, basarixan behiñ sei-zazpi urtera ezkeru, beng, edo atxurra edo segia, laster izeten zan zeozer.
- 5) (Euskeria) Behiñ Itziar eta Azkoitti aldera ezkeru, sartzen dok pixkat Gipuzkua.
- 6) Belaunetatik eta, behiñ edade batera ezkeru, txarrago gelditzen dok.
- 7) Ez iazu esan! Hiltzia? Hiltzia grandia da behiñ edare batera ezkeru. Ez dauana hil bihar da, nik beti esan dot, ba sa-soian dagan pertsonia.
- 8) Lo egitten det, baiña esna ere asko. Nik, goizeko hirurak ezkeru, gaur batere ez det egiñ.

Jesus Mari Makazaga



Karrikizano

San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

615793406



MENDARO

Eraikitzailearen prezio zuzena, bitartekorik gabe.

3 logela, saloi-jangela,
2 komun, sukalde eta balkoia.
90m²-ko azalera erabilgarria.

Material bikainez eraikia.
Azkeneko etxebizitzak.

41.615.000 pta

ANE GUILLÓ GUATEMALAKO KOOPERANTEA

«Nahiz eta gehiengoa izan, Guatemalako indigenek diskriminazio handia jasan dute»

Edozein amodio filmetako baino erromantikoagoa da Ane Guilló eta Mateo Cantúren istorioa. Italian ezagutu ziren, Euskal Herrian elkarbizitzen egon ostean, Milanen ezkondu ziren iazko uztailearen 23an eta bost egun beranduago Guatemalan ziren. Bi astetan zehar Guatemalako txoko desberdinak bisitatu zituzten. Orain Ixcanen daude Eusko Jaurlaritzak emandako beka batekin lanean. Anek gerturatuko dizkigu Guatemalako kontuak gaurkoan.



► Eztei bidaia bitxia aukeratu zenu- ten, ezta?

Bai, uztailearen 23an Italian ezkondu eta 28an Guatemalara iritsi ginen. Bi aste Guatemalan zehar bidaiatzen pasa ondoren, abuztuaren 15ean Ixcanen hasi ginen lanean Eusko Jaurlaritzaren beka bati esker. Urte baterako etorri ginen, baina beste urte bete gertatea espero dugu.

► Nola hartu zenuten erabaki hau?

Aspalditik genuen honelako zerbait egiteko asmoa. Guatemalara etortzeko aukera ezkontzeko data erabaki ondoren suertatu zen eta onena ezkondu ostean joatea zela pentsatu genuen. Guri berdin zitzaigun nora joan: Hegoamerika, Ertamerika, Afrika, Asia... Guatemalan gure neurriko proiektu bat eskaini ziguten eta orain hemen gaude.

► Nolako da Ixcan?

Guatemala iparraldeko udalerririk bat da, Chiapasekin muga egiten duena. Duela 40 urte hemen ez zegoen ezer, oihana besterik. 60. hamarkada amaieran lurrik ez zeukaten nekazari indigenek kolonizazio prozesua hasi zuten. Gerra garaian oso inguru gatazkatsua izan zen. Ejertzitoak inolako erreparorik gabe burutu zituen zibilen masakreak, gerrillak jarraitzaile asko zituena aitazkia erabiliz. Udalerririk bezala, orain dela 20 bat urte sortu zen. Oso handia da, 1.575 km² eta 68.000 biztanle ditu, 186 auzo edo komunitatetan banatuta. Gu hiriburuan bizi gara, Playa Granden.

► Zein da zuen lana?

Ixcaneko Kooperatiben Federazioan ari gara lanean. Hiru nekazal kooperatiba biltzen ditu. Orain dela ia bi urte sortu zen eta organizazio aldetik nahiko ahul dago. Gure lana ahal dugun gaietan laguntzea da. Gestioa edo federatutako kooperatiben parte-hartzea indartzen saiatzen gara, besteak beste. Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako proiektu bat jarri du martxan. Proiektu honetan hainbat atal egongo dira: ohianeko arbolatxoekin mintegia, "palmito pejibaye" enbotatzeko lantegia, udal hiltegia...

► Nolako da Guatemalako bizi- modua?

Guatemalako populazioaren zati handi bat pobrezian bizi da. Ixcanen, esaterako, %82,66. Populazioaren gehiengoa nekazaria eta indigena da. Hala ere, lur gehiena europar jatorriko gutxi batzuen eskuetan dago. Euren historian zehar, nahiz eta gehiengoa izan, indigenek diskriminazio handia jasan behar izan dute, eta oraindik ere igartzen da. Herriska askotara ez dira asfaltozko bideak iristen eta etxe askotan ez dute urrik, ez argindarrik. Baina globalizazioaren eraginez edo, telefono mugikorrek nonahi ikus daitezke eta internet zentro bat aurkitzea gero eta errazagoa da. Askok Estatu Batuetara emigratu dute lan bila eta haven senideek izugarriko ilarak egiten dituzte banketxeetan "iparraldean" irabazitako dirua jasotzeko.



► **30 urteko gerra zibiletik atera berri dira guatemaltekoak. Nabari al da?**

Bai, Ixcanen, adibidez, banaketa handia dago: batzuk Mexikora joan ziren errefuxiatu gisa, beste batzuk ejerzitoaren menpe geratu edo erresistentzian mendian ezkutatu ziren eta beste batzuk gerrillan parte hartu zuten. Orain talde desberdin horiek eguneroko bizitza elkarbanatzen dute. Federazioan, nahiz eta ideologia antzekoa izan, historia desberdinak bizi izan dituzten pertsonekin egiten dugu lan. Jendeak asko sufritu zuen eta gerra zibileko zauriak oraindik ez dira itxi.

► **Maya inperioaren sorlekuetako bat izan zen Guatemala. Nabari al da iragan hori?**

Egungo populazioaren gehiengoa antzinako mayetatik datozen etnietakoko partaide da eta, gaztelaniaz gain, 20 bat hizkuntza hitz egiten dira Guatemalan. Askotan, beraien ohiturak mantentzen dituzte. Emakume indigenek (eta herri batzuetan gizonetako ere), eskuz egindako oihala tradizional koloretsuak jantzen dituzte. Erlijio edo sinesmen aldetik, mayek beren kosmo-

bisio propioa dute eta askotan erlijio katolikoa eta beren ohiturak nahasirik praktikatzen dituzte. Gehiengoa izan arren, espainolen etorreratik oso baldintza txarretan bizi behar izan dute indigenek. 1996ko Bake Akordioaren ostean, egoera hobetuko zela zidudien arren, oraindik indigenen eskubideek zapalduta jarraitzen dute.

«Sakeleko telefonoak nonahi ikusteak harritu nau»

► **Lurrikarak ere ohikoak ei dira Guatemalan. Beldurrik bai?**

Aktibitate sismiko handiko zonan dago Guatemala. Antigua hiriburu zaharra, 1773ko lurrikararen ostean lekuz aldatu behar izan zuten. Hala ere, hiriburu be-

riak ere, hainbat lurrikara jasan behar izan ditu. 1976ko lurrikara gertatu zenean, 22.000 lagun hil ziren eta milioi batek beren etxebizitza galdu zuten. Zorionez, Ixcan leku nahiko lasaia da zentzu horretan. Fenomeno klimatikoek kalteak eragin dituzte Ixcanen eta herrialde osoan. Jende gehiena egurrezko txaboletan bizi da eta edozein ekaitz edo haize bolada gogorrek teilatua eta gainontzeko dena eraman dezake. Mitch hurakanaren ondoren iritsitako dirulaguntza internazionalarekin eraikitako zubi asko ikus daitezke.

► **Zein da guatemaltekoen beharrik handiena?**

Heziketa maila oso baxua dute. Horretaz gain, izan duten historiaren ondorioz, inizatiba falta zaie, euren gan sineitea.

► **Euskal Herriatik imajinatu al daiteke horko bizimodua?**

Gaur egun, egunkari, liburu, aldizkari, internet edo dokumentalen bidez gauza asko jakin daiteke herrialde bati buruz Euskal Herriatik mugitu gabe. Hala ere, benetan ezagutzeko modurik onena bertara etortzea dela deritzot.



[PROTAGONISTA]



Carlos Mugerza

Azken egunotan telebistan ikusi ahal izan dugu Carlos Mugerza elgoibartarra. Cuatro kateko "Duelo de chefs" saioan parte hartu du, eta sukaldarako benetako trebezia daukala erakutsi du gainera. Profesionalak ez diren sukaldarien arteko lehia bizian datza programak. Partehartzaileei prestatu behar duten jatekoa zein den esaten zaie eta minutu bat daukate osagaiak bilatzeko, eta 25 minutu jatekoa prestatzeko. Garbitasuna, teknika eta aurkezpena baloratuko dira. Momentuz, Carlos Mugerzak aurrera egin du eta astelehenen finalean ikusteko aukera izango dugu.

[NOTIZIA]

San Joan arbola jarri eta sua piztuko dute gaur Altzolan

Eguerdiko 14:30ean hasi dira aurtengo Altzolako jaiak. Txapligu jaurtikitak eta kanpai hotsek eman diete hasiera San Joan jaiei. Ekitaldi desberdinez osatutako egitaraua prestatu du aurtengo jai batzordeak. Gaur, ekainak 23, San Joan bezpera eguna da, eta bi ekitaldi aipagarri izango dira: iluntzeko 20:00etan San Joan arbola landatuko dute herriko gizonek eta gaueko 22:30ean San Joan sua piztuko dute errekan. Bihar, ekainak 24, San Joan eguna, Meza Santua eta prozesioak irekiko du eguna. Arratsaldean mus txapelketa izango da, eta gauean "Eclipse" taldearekin dantzaldia. Jaiak domekan bukatuko dira. Poteoa, herri bazkaria haurrentzako jolasak, zezentxo eta poniak izango dira, besteak beste.



San Pedroko jaiak

San Joanen ostean, San Pedroko jaiak hasiko dira. Ekainaren 28tik uztailaren 2ra luzatuko dira aurtengo jaiak. Prozesioa, musika eta herri kirolak ikusteko aukera izango dute bertara joaten direnek.

[ZENBAKIA]

50

Trinitate bezperan Euskal Herriko Naziotasun Agiria egiteko mahaiak jarri ziren Plaza Handian eta antolatzaileek esan digutenez, 50 lagun inguruk bete zituzten paperak. Beraz, Elgoibaren 750 pertsonak daukate gutxi gora behera EHNA. Uda ondoren, berriro jarriko dituzte EHNA egiteko mahaiak.

[ARGAZKIA]



Gertakizun bitxi baten lekuko izan dira Elgoibarko kaleak aste honetan: euri zaparradarekin batera igelak jauzi ziren zerutik! Bai, atzazal baten tamainako igeltxoak, ehunka! Herritar bat baino gehiago hurbildu zen Kultur Etxe atzeko parkera. Nondik etorri dira? izan zen galdera. Elgoibartar edadetu batek argitu zigunez, "lehen ohikoagoak ziren horrelakoak. Akorduan daukat Errosario eta San Frantzisko kaleak igeltzoz betetzen ziren egunak". Beste batek etxera eraman zituen pare bat igel. Urreratzeraz ausartzen ez zenik ere aurkitu genuen.

Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntza sistema aurkeztu du IMHk



IMHk Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntza Sistema (POI) aurkeztu zuen joan zen barixakuan. Egungo irakaskuntza sistemak dituen hutsuneak gainditzeko asmoz, proiektu berritzaile honen proposamena egin zuten duela bi urte IMHko hiru irakasleek. Juan Inazio Irizar, Ander Elola eta Imanol Iturriak Fabrikazio Mekanikoko zikloetan oinarritutako zazpi proiektu prestatu dituzte, eta ikasleek proiektu horien prozesu guztian parte hartzen dute. Irakasleak prozesuaren gidatzaileak izaten dira eta ikasketak amaitu ondoren ikasleek aurkituko dituzten jarrerak sustatzen dituzte.

Enpresen beharrak erantzuteko langileak

1991. urtean jarri zen martxan IMH eta ordutik, enpresen beharrei erantzungo dien langileak sortzea da bere helburua. Irakaskuntza sistema berri honekin, ikasleak enpresen jarduera guztia ikasten du, bezeroak eskaria egiten duen unetik produktua bukatzen den arte. Momentuz Heziketa Zikloko lehenengo mailan jarri dute martxan, eta lortutako emaitzekin oso gustura daudela adierazi dute. Datorren urtera begira, bigarren mailan ere sistema berri aplikatzea da helburua.

Euskara politikaren gaineko txostena kaleratu du Einbiouk

Einbiou Herri Plataformak Udalaren hizkuntza politikari buruzko eztabaida bultzatu nahi du herriko eragileen artean. Einbioukoen esanetan, "Elgoibarren badago Euskara Biziberritzeko Plana, 2003an onartua, baina inork ez daki plan hori nola doan". Euskara Biziberritzeko Plana onartu zenean, Aholku Batzorde bat sortu zen plan honi jarraipena egiteko, eta Einbioukoek esan dutenez, "hiru urtetan behin ere ez da bildu Aholku Batzorde hau". Einbioukoak kezkatuta agertu dira euskararen erabileraren jaitsierarekin: "Gaur egun jende gehienak daki eus-

karaz baina erabilera gutxitu egin da, hori oso kezagarria da". Bi gauza eskatu dituzte Einbiouko kideek: Batetik, Aholku Batzordea martxan jartzea, Einbiouk bertan lekua izanik, eta bigarrena, Udalak Osakidetzaren Euskara Planean parte har dezala: "2011ra arteko plana aurkeztu du Osakidetzak eta lotsagarria da. Elgoibar-ko Osasun Zentroan dagoena baino euskara maila gutxiago eskatzen du. Bi pediatretatik batek ez daki euskaraz, eta umeekin lan egiteko, euskara ezinbestekoa da. Gai honetan presionatzeko eskatzen diogu Udalari".

[MOTZ-MOTZIAN]

"Gomendatzen dizut" lehiaketa

Gazte Informazio Guneak "Gomendatzen dizut: merezi du" lehiaketa antolatu du. Bisita eta bidaien inguruko ahalik eta informazio gehien biltzea da helburua, esaterako alojamenduen kostua edo ibilaldi interesgarriak, gainontzeko bisitarientzat erabilgarria suertatu dadin. Lanak urriaren 17ra arte entregatu ahal izango dira Elgoibarko Gazte Informazio Gunean edo elg.gzerbitzua@terra.es posta elektronikorik. Zozketa urriaren 20an egingo da.

Eibarko jaietarako trenak

Eusko Trenek Eibarko San Joan jaietara joateko eta bertatik bueltatzeko gaueko tren zerbitzua jari du, gaurko eta biharko. Gaueko 22:30ean hasiko da, eta ordu erdiro izango dira Eibarrera joateko trenak. Bueltako trenak orduka izango dira, 00:10ean hasita goizaldeko 6:10era arte.

Danobateko Hiztegi Teknikoa eta Tailerreko Eskuliburua

Danobat Enpresak bere webguneko euskarazko bertsioan jarri ditu eskuragarri Hiztegi Teknikoa eta Tailerreko Eskuliburua. 2003an langile batzuen ekimenez hiztegi tekniko bat prestatu zuten euren arteko harremanak euskaraz izateko ahalegin batean. Bestalde, 50. Urteurrena aprobetxatuz lan sakon eta mardulago bati ekin zioten 2004an, Tailerreko Eskuliburu Teknikoa argitaratuz. Euskararen alde pausu garrantzitsuak ematen ari da Danobat.

Elgoibar Loiolako Herri Irratian

Alberto Gorritiberea kazetariak zuzenduta, Elgoibar izango da bihar protagonista Herri Irratiko "Heriz herri" saioan. 9:30etik 11:00ak arte, kale inkesta, udaleko kontuak eta kanpoan bizi den elgoibartar batekin elkarrizketa entzuteko aukera izango da. 99.8an entzun daiteke.

Gaur gauean, ekainak 23, piztuko dira San Joan gaueko suak.

Zer botako zenuke gustura San Joan sutara?

NADIA HADI

Ikaslea

17 urte



“Batxilergoko liburu eta apunte guztiak. Etapa berri bat hastera noa unibertsitatean eta aurrekoa ahazteko modurik onena sutan erretzea da.”

CRISTINA LORENZO

Espezialista

31 urte



“Urte ona izan da niretzat, baina familia arteko arazo guztiak erreko nituzke gustura, eta baita gaixotasunak ere. Une txarrak ahaztu eta aurrera egin behar da.”

EDURNE GURRUTXAGA

Etxekoandrea

41 urte



“Urtean zehar eduki ditudan momentu txar guztiak erreko nituzke gustura San Joan suan. Beti izaten dira une gorrak eta horiek ahaztea da nire nahia.”

MIREN FERNANDEZ

Sukaldaria

26 urte



“Munduan dauden injustizia guztiak botako nituzke sutara. Hirugarren munduan dagoen gosea, adibidez. Mundu solidarioagoa lortu behar dugu denon artean.”

[BAI ala EZ?]

Ba al daukazu Munduko Futbol Txapelketako partidak ikusteko asmorik?

BAI %48

“Bai, finalerdiak eta finalak behintzat ikusiko ditut. Ez diot denbora askorik eskaintzen Munduko Futbol Txapelketari, baina emaitzak jakitea gustatzen zait.”

EZ %52

“Ez, ezta minutu bat bera ere! Txirrindularitza eta futbola dira telebista aurrean lo egiteko modurik onenak. Ez zait batere interesatzen futbola!”

Datorren asterako... Jaurlaritzako datuen arabera, EAEko gazteen %12,4 pisua galtzeko dieta egiten ari da.

Uda datorrela-eta, egiten al duzu pisua galtzeko dietarik?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) **ERANTZUNA**

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 € + B.E.Z.-a.



Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

berria gure etxean euskara

Egin zaitez harpidedun

1. Kioskoko prezioa baino %10 merkeago
2. Banaketa DOAN goizeko 08:00ak baino lehen: etxean, lantokian, kioskoan...
3. Harpidedunentzat zozketak, opariak eta deskontuak.
4. Promozioetan abantailak



Orain eskaintza berezia

Ekaina amaitu baino lehen harpidetuz* gero, **2 opari aukeran**

MP3 Irakurgailu digitala



Kamera digitala



Deitu ORAIN!! **943 30 43 45**

Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

MENDAROKO OSPITALA

30.000 euroko kalteordaina eskatzen dute umea aldatzeagatik

Oragan otsailean bi ume jaioberri nahastu zituzten Mendaroko Ospitalean. Ondorioz, ume horietako baten gurasoek 30.000 euroko kalte ordaina eskatzen diote Osakidetzari, beraien esanetan, gertaera honek umearen heziketan kalteak eragin zituelako eta umearen aita psikologikoki oso gaizki egon zelako.

Susto handia

Mendaroko Ospitala ireki zenetik, bi aldid nahastu dituzte ume jaioberriak. Azkenik, joan zen otsailaren 17an gertatu zen. Umea jaiostean erizain batek proba

bat egitera eraman zuen. Proba egin ondoren bueltatu zuen umea logelara, eta gurasoek ile gehiago zuela sumatu zuten, baina ez zioten garrantziarik eman. Ordu batzuk beranduago, beste erizain bat etorri zen umearen bila, proba bat egin behar ziotela esanez, eta berehala konturatu zen ume hark proba hori egin zuela. Gurasoak erizainaren harridura aurpegia ikustean zerbait oker zihoala konturatu ziren. Beraien umea beste guraso batzuk zeukaten. Badaezpada ADN probak egin zituzten, baina hurrengo egunerako dena konponduta zegoen.



“Gaztetxea orain” lemapean kontzentrazioa

Mendaroko Gazte Asanbladak deituta, kontzentrazioa egingo da gaur arratsaldeko 19:00etan udaletxe aurrean. “Gaztetxea orain” lemapean, gaztetxe berri baten beharra aldarrikatuko dute. Gazte Asanbladakoen esanetan, bi urte baino gehiago pasatu dira Gazteguneko proiektua onartu zenetik, baina oraindik gaztetxerik gabe jarraitzen dute. Aurrerantzean ostiralerako kontzentrazioa egiteko asmoa daukate, gaztetxe berria lehen bailehen lortzeko.

Beñat Urain Eibarko San Joan txirindulari lasterketan irabazle

Laxy taldeko Beñat Urainek Eibarko San Joan txirindulari lasterketa irabazi du. 2 ordu eta 33 minutu behar izan zituen mendarotar txirindulariak 95 kilometro egiteko.


Santa Ana jaiak

Mendaroko Udalak jakinarazi duenez, Santa Ana jaietan txosna jartzeko asmoa duten elkarte desberdinek datorren ekainaren 30erako egin behar dute eskaera Mendaroko Udalarekin.

Lau mendarotar “Hiru Handiak” mendi martxan



Igor Ezenarro izan zen “Hiru Handiak” iraupen luzeko mendi martxa bukatzen lehen mendarotarra (ikus eskuineko elkarriketa), baina ez zen bakarra izan. Oskar Goikoetxeak 584. postuan (22:51:25) amaitu zuen mendi martxa eta Josune Azpitartek 586. postuan. Josune Otxandioko helmugan sartu zen 19. emakumezkoa izan zen. Haritz Goikoetxea ere atera zen, baina ez zuen proba amaitzerik lortu.



KILI KLIK

Markesina berriak

Azkenean autobus erabiltzaileen eskaria beteko dela dirudi. Kexa asko egon dira gai honen inguruan, eta egoera honi amaiera emateko asmoz, Eusko Trenek markesina berriak jarriko ditu Ospitaleko autobus geltokian eta Plaza auzoan. Euria egiten zuen egunetan jendea ospitaleko aterpean egon behar izaten zen zain, eta ez zen batere eroso. Mendaroko Udalak diru laguntzak jaso ditu Jaurilarizatik.





IGOR EZENARRO

30. Hiru Handiak Mendi Martxan

«Argi eduki behar da azken helmuga non dagoen eta zenbat falta den»

"Hiru Handiak" estraineko aldiz egin eta 30. postuan ailegatu zen Igor Ezenarro (35 urte) mendaroarra. Zalduondo eta Otxandio arteko 100 kilometroak 15 ordu eta 47 minututan burutu zituen bi metroko mutil puska honek, bidean Aizkorri, Anboto eta Gorbea, Hiru Handietako tontorretatik pasa ostean.

30. postuan amaitu zenuen. Espero al zenuen horren aurrean ibiltzea?

"Hiru Handiak" egitea helburutzat jarri nuenean amaitzea zen lehen asmoa. Presaketetan hasi eta 20 orduren azpitik ibil nintekeela pentsatu nuen gero, eta sasoi betean sentitzen nintzenez, zenbatean egiteko gai ote nintzen ikusi nahi nuen azkenean. Suabe atera nintzen, Anboto gainetik 64. postuan pasa nintzen, baina oso indartsu amaitu nuen. Gustura.

Korrika egin al zenuen?

Gaueko etapa oinez egin nuen zatirik handiena. Goizez, aldapa beheretan eta lauan 'trote'an joan nintzen. Entrenatzeko erabili ditudan iraupen luzeko gainerako martxak: Billabonakoa (42 km.), Sakana-koa (55 km.) eta Bi Handiak (55 km.) oinez egin ditut, baina Durangokoan (58 km.) eta Elgoibarko Itzulian (38 km.) antxintxika probatu nuen nire burua.

Zein izan zen zatirik gogorrena?

Gavez egin beharrekoa (gaueko 00:00etan ateratzen dira) psikologikoki gogorra da. Elgeako parke eolikoan pasa nituen unerik bajuenak; oinez, gavez eta bakarrik egin bainuen, hariak eta talde bat harapatu nuen arte. Ibilbide gorabeheratsua eta luzea (ia bi ordu) izateaz gain, eoliko-en zarata eta haizea gogaikarriak dira. Gorbea igotzen, berriz, jatekoari kolpe egitean beroaren eraginez ustelduta zegoela

konturatu nintzen. Ikusle batek eman zidan barrita enrgetikoak ez sinisteko moduko mesedea egin zidan. Eskerrak hari!

Zein da proba honen berezitasuna?

Doai fisiko ikaragarriak izan ditzakezu, baina proba honen ezaugarrietara egokitu ezean, baliteke ez bukatzea. Ez da pultsometroak markatzen duena bakarrik, txasisa ere mendian ibiltzera ohitu eta egokitu behar da, asko entrenatu, alegia. Kirol bakoitzak bere espezifikazioa eskatzen du. Tontorrera erraz asko igo arren, ohituta ez dagoenak, belauak txiki ditzake lehen jaitsieran, esaterako. Zaindu beharreko detaileak ere asko dira: janaria, hidratazioa, e.a. Bi orduan behin zerbeit jan eta aldapan gora likido mordoia edaten nuen eta hiru bider aldatu nituen galtzerdiak, urradurak eta babak ekiditeko. Edozein huskeria nahikoa da dena pikutara joateko. Beste gakoetako bat; atseden hartzeko bakoitzak behar duen denborarekin asmatzea dela uste dut.

Erritmoa mantentzea ere garrantzitsua izango da, ezta?

Bai, erritmo aldaketa bortitzegiak egiten zituzten asko ikusi nituen, eta esfortzuok ordaindu egiten dira. Argi eduki behar da azken helmuga non dagoen eta zenbat falta den. Kontrolatu. Esatea erraza da, baina ikusi arte ezin da jakin, beti baitago 'pajaria' hartu eta ez bukatzeko arriskua.



«Txasisa ere mendian ibiltzera ohitu behar da»



GAZTIA NAIZ

txapela bUruAN...



Ainhoa Uriarte

Gaur hemen eta bihar han! Honela iritsi zen Ainhoa Uriarte Bartzelonara. Ahizpa eta lagun bat bisitatzeko asmoz joan zen Kataluniako hiriburura, eta bertan geratu da. Ikasketak amaitu berri zituen eta Bartzelonan topatu du lana. Aparejadore lanetan ari da. Lau hilabete daramatza bertan, eta momentuz oso gustura dagoela kontatu digu. Gaztea da, alaia, denbora soberan dauka, bidaiatzea gustuko du eta bizitza aprobetxatzea da bere asmoa. Gaur Bartzelonan dago, bihar, auskalo!

Nolatan joan zinen Bartzelonara?

Nire asmoa ahizpa eta koadrilako lagun bat bisitatzeko zen, ikasketa amaierako proiektua aurkeztu aurretik. Gau batean, telebista ikusten geundela, internet bidez curriculum batzuk bidali nituen, eta hurrengo egunean entrebistak egiteko deitu zidaten. Elgoibarrera joan nintzen jendeari gero arte goxo bat esateko, dena prestau eta Bartzelonara! Konstruktora batean arkitekto tekniko lanetan nabil

Nolako da Bartzelona?

Hitz gutxitan esateko: hartu ontzi bat eta inoiz botako ez zenituzkeen osagaiak gehitu beldurrik gabe. Gero, etxean bezala sentitzeko letxuga eta tomate piskat bota, dena nahastu eta hori da Bartzelona: zapore, usain eta sentipen ezberdinez betetako entsalada.

Nolakoak dira bertako biztanleak?

Denak kanpotarrak gara, mundu guzitik etorritako jendea dago. Batzuk lanera, besteak ikastera, oporretan... Bihotz oneko jende gutxi ezagutu dut, nahiz eta jende oso ezberdina egon. Pena bat da.

Zer egin zitzazun zailena hasieran?

Batetik bestera joateko hamaika garraiobide hartu behar direla eta ez dakazula oinez ibiltzeko erretzasun handirik. Bestalde, lanerako katalana derrigorrezkoa da. Gogoz, dena ikasten da.

Bisitan joanez gero, zer erakutsiko zeniguke?

Hori bisitan etortzen zaretenean esango dizuet, izan ere, hemendik gutxi batzuk pasatu dira oraindik, eh? Zaila da esatea, hainbeste gauza eta hain desberdinak daude... Hemen denetarik egin daiteke.



www.eroski.com

merezi duzu

INDIA eta NEPAL

taldean

1.995 €

San Bartolome, 11 **ELGOIBAR** Tel. 943.74.46.56



merki duna

Abuztuaren 13tik 26ra
Bilbotik.
Eskatu egitaraua!
(Tasak eta bisatua ez barne).



biluzik

sexologia txokoa

Eider Goiburu [Sexologoa]

Sexu harremanak

Zein adin da sexu harremanak edukitzeko onena? Zenbat urterekin galdu behar da birjinitatea? honelako galderak behin eta beriz egin izan dizkiogu geure buruari. Eider Goiburuk Biluzik Sexologia Zerbitzuko sexologoak galdera hauen inguruko hainbat azalpen eman dizkigu gaurkoan.

Espainiako gazteen sexu harremanei buruzko artikulua bat irakurri dut eta artikulua askok bezala, gazteak sexu harremanak gero eta goizago hasten dituztela dio, 16 urte baino lehenago. Benetan uste duzue hau horrela dela? Gipuzkoako gazteek diotenez, "Vaya Semanitakoek" arrazoi dute eta Euskal Herrian ligatzea eta sexu harremanak edukitzea oso zaila da. Lotsa pixkat galduko bagenu... Donostiako 12

ikastetxetan 04-05 ikasturtean egin zen ikerketa batean, DBH 3ko (14-15 urte) %5,4ak bakarrik dio noizbait koito harremanak eduki dituela. Eta DBH4an (15-16 urte) %18,8ak. Irakurri dudan artikulua zioenez, nahigabeko haurdunaldien gorakada nabarmena egon da eta baita abortuena ere. Hau ekiditzeko, "metodo bikoitza" proposatu dute: mutilak preserbatiboa erabiltzea eta neskek pilula anti-

sorgailuak hartzea. Horrela, beraiak diotenez biek dute prebentzioaren ardura. Preserbatiboa erabiltzea ez al da ba, nesken eta mutilen ardura? Eta nola parekatu dezakete preserbatiboaren erabilera eta pilula antisorgailuak hartzea? Pilulak hormonak dira eta emakumeen gorputzean eta osasunean eragina dute, preserbatiboek ez. Beriz ere, emakumeon osasunak baliokide ez duela dirudi.



LEHIAKETAK

"FOKATU UROLA GARAIA" ARGAZKI LEHIAKETA

"Fokatu Urola Garaia" argazki lehiaketaren 3. edizioa. Baldintzak: Interesa duten pertsona guzientzat irekia. Gaia: energia eta honekin zerikusia duen edozein arlo. Eremua: argazkia Urola Garaian eginkoa izan beharko da. Saria: 150 ºko 5 sari ; 200 ºko sari berezi bat. Epea: 2006-06-30 Informazioa: 943 726164 / 943 726368

KIROL ARGAZKILARITZARI BURUZKO

I. LEHIAKETA ELGOIBARREN

Elgoibarko Udalak eta Ongarri taldeak antolatuta. Baldintzak: Kirol-jardueraren bat erakusten duen edozein irudi aurkeztu ahal izango da. Argazki guztiak paperezko formatuan aurkeztu behar dira, txuri beltzean nahiz koloretan. Edozein teknika onartuko da. Epea: 2006-07-21 Informazioa: 943 744415 edo <http://www.elgoibar.org>

BEKAK

IRUNGO HISTORIARI BURUZKO 2006KO "SERAPIO MUGIKA" IKERKUNTZARAKO BEKA

Irungo Historiari Buruzko 2006ko "Serapio Mugika" ikerkuntzarako beka. Baldintzak: Irungo historia ezagutzeko edo bere iturri historikoak berreskuratzeko lagungarri gerta litezkeen jatorrizko eta argitaratu gabeko ikerkuntza proiektuak egingo dituzten ikerlariak. Dirulaguntza: 9.000 º Epea: 2006-09-12. Informazioa: 943 649200 Irungo Udala

ATZERRIAN IKASKETAK EGITEKO BEKAK, EAE-RENTZAT INTERESGARRIAK DIREN GAIEGAN ESPEZIALIZATZEKO

Programa honen helburua da unibertsitateko goi-mailako tituludunei atzerrian, irakaskuntza arautu bitartez, gai interesgarrietan espezializazioa ahalbidetzea. Baldintzak: EAEn gutxienez 2005eko urtarilaren 1az geroztik errolatuta egotea. Lizentziatu, ingeniari edo arkitekto titulua edukitzea eta ikasketak 2002ko ekainean edo geroago amaituta izatea. Ikasketen batez besteko nota. Epea: 2006-07-09 Informazioa: 943 022850

LANA

EUSKARA TEKNIKARI BAT ARETXABALETAKO UDALERAKO

Aretxabaleako Udalean Euskara Teknikari lanpostu bat betetzeko oposizio-lehiaketa. Baldintzak: Unibertsitateko erdi-mailako titulazioa edo baliokidea izatea. 4. hizkuntza-eskakizuna. Epea: 2006-06-29. Informazioa: 943 711862

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan.
e-posta: elg.gzerbitzua@terra.es
943 741 461

5 Asteartefik ostiralera 16:00-19:00

EUSKARA

49 haur aritu dira Elgoibarko Izarraren Euskara Errefortzuetan


Alde batetik, 5-9 urte bitarteko haurrei eskainitako errefortzuak izan dira, alegia, euskaraz berba egiteko zailtasunak dituzten bertako haurrei, eta kanpotik etorri eta euskara ikasten ari diren haurrei zuuzenduriko eskaintza. Hemen, 45 haur jardun dira, hauetatik 8 etorkinak. Astean bi orduz jardun dute ahozotasuna eskola orduz kanpo lantzen. "Haur askorengan aurrerapenak nabaritu ditugu, eta bai laguntzaileak eta bai guraso asko oso gustura agertu dira lortutako emaitzekin" adierazi du Nerea Larrañaga Elgoibarko Izarrako teknikariak. Bestalde, 10-18 urte bitarteko gaztetxo etorkinei zuzendutako

errefortzuetan, kanpotik etorri eta euskaraz ez dakiten gazte etorkinak aritu dira. Hauek astean 2 ordu eta erdiz jardun dute euskara ikasten. Lau ikasle izan dira taldean, bi brasildar, kolonbiar bat eta boliviarrak. "Eskaintza honen inguruan ez dugu hain balorazio positiboa egiten, batez ere, oso ikasle gutxi eman dutelako izena. Gainontzean, aurten parte hartu duten ikasleak nahiko gustura aritu dira" azaldu du Larrañagak. Egitasmoa urrian jarriko dute martxan berriro. Horretarako iraillean ikastetxeetan izen emateko orriak banatuko dituzte. Informazio gehiagarako jo Elgoibarko Izarrara (943 74 16 26).



Sanmigeldarren Eguna giro onean ospatu zuten auzotarrek

Aiastia-San Miguel bailarako auzotarrek San Migeldarren Eguna ospatu zuten joan zen ekainaren 18an. Meza Nagusia entzun ostean, auzotarren arteko pilota partida jokatu zen Murkaikupe frontoian eta Orube eta Talaixak 22 eta 17 irabazi zieten Belarreta eta Sagarragari. Ondoren auzoko sukaldariak prestatutako bazkari herrikoiaz gozatu ahal izan zuten bertaratutakoek. Gardokiren dantzaldiarekin eman zioten amaiera aurtengo zuzendutako sanmigeldarren egunari.



Neskak nagusi Idazmakinak Literatur Lehiaketan



laz gertatu zen moduan, aurten ere neskak izan dira jaun eta jabe Idazmakinak Literatur Lehiaketan, sari guztiak eskuratu baitituzte. Iban Garate aktore eta telebista aurkezlea izan zen sari banaketako gonbidatua. Ainhoa Mendibil elgoibartarrak elkarrizketa txiki bat egin zion lehenik eta gero sariak banatzeaz arduratu zen azkoitiarra. Ipuinei dago kienez, DBH 1-2 mailan, Lorea Lozano izan zen irabazlea "Gustura lagunduko nioke" ipuinari esker. Mirian Mugerzak "Irakaslea gustatzen zait" gaiaren inguruan idatzitako ipuina aukeratu zuen

epaimahaiak DBH 3-4 mailan. Azkenik, Batxilergoko ikasleei zuzendutako mailan, Maite Quintanillak jantzi zuen txapela "Ez naiz lehengoa" gaiaren inguruan idatzitako ipuinarekin. Bertsoen sailan Maialen Olazabalek idatzitako bertso sortak lortu zuen Batxilergo mailako bigarren saria, lehenengo saria hutsik geratu baitzen. Irati Agirreazaldegia eta German Meabebasterretxea aritu dira bertsoak epaitzen eta Jasone Osoro eta Jon Eugi, Urruzuno Literatur Taldeko kideek izan dute ipuinik onenak aukeratzeko ardura.

JAIME MARTINEZ ARKULARIA

«Animalia bizidun bat arku eta geziekin ehizatzea demaseko sentzazioa da»



Jaime Martinez Euskal Liga Baso 3D Txapelketako irabazlea da. Arku eta geziak jautiz animalien hiru dimentsiotako irudiak jo behar dira kirol honetan eta Jaimek Euskadiko punteria onena duela erakutsi du. Irailean Espainiako Txapelketan parte hartuko du Granadan.

► **Zer da Baso 3D Txapelketa, Jaime?**

3D horrek, hiru dimentsiotako animalien irudiak esan nahi du. Baso ibilbide batean 20 irudi jartzen dira; gertuena 5 metrora eta urrunena 35 metrora, eta minutu batean bi gezi jaurti behar dizkiogu irudi bakoitzari. Bihotzean joz gero 10 puntu, 8 puntu biriketan eta 5 puntu gainontzeko lekuetan. Lehen geziak puntuazio handiagoa du, erreferentziarik gabe jaurtitzen baita.

► **Euskal Ligako hiru proba eta sailkapen nagusia irabazi dituzu aurten.**

Bai, Arku Errekurbatu Klasikoen kategorian parte hartu dut eta 3 proba irabazi ditut, beste batean bigarren izan nintzen eta Euskadiko Txapelketan 3. sailkatu nintzen. Primeran atera zaizkit gauzak.

► **Zein dira arkulari onaren ezaugarriak?**

Kirol metodikoa da; entrenamendu, kontzentrazio eta errepikapen asko eskatzen duena. Gezi bakoitza botatzean zer egin duzun ondo eta zer gaizki konturatzeari funtsezkoa da. Astean birritan jotzen naiz Ordiziara entrenatzera, 3 dimentsiotako animalien irudiekin osatutako zirkuitu bakarretakoa baitaude han. Duela 4 urte izan nuen modalitate honen berri, eta Ordiziako taldearekin hasi nintzen, Gipuzkoan dagoen bakarra.

► **Zer abiadura hartzen dute geziak?**

Gezia arkutik irretzerakoan 220 km/o.ko abiadura neurtuta daukat.

► **Zerk erakartzen zaitu gehien kirol honetatik?**

Mundua eta lagun berriak ezagutzeko aukera eman dit, batez ere. Euskal Herriaz aparte, aurten leku dezentetan ibili gara; Cadiz, Madril, Girona, Castellon, Tudela, e.a. Hain zuzen ere, irailean jokatuko da Espainiako Txapelketa Granadan. Euskadiko taldea ordezkatzeko dut bertan eta zorte piska batekin aurrean ibiltzeko aukerak ditugula uste dut. Espainiako Ligan 11. postuan sailkatu naiz, proba guztietan parte hartzerik izan ez dudan arren, eta beste euskaldun bat hirugarren sailkatu da. Abuztuan topera entrenatzeko asmoa daukat.

► **Benetako animaliak ehizatzeke gai izango al zinateke?**

Bai. Aurten Salamankako ehiza esparru pribatu batean ehizatzeke baimena lortu dugu eta basurdeak eta mufloiak ehizatzeke asmoa daukagu. 15 bat lagun joango gara, batzuk postu fijoetan eta beste batzuk animaliak xaxatzen, postuetara bideratzen ariko dira. Aintzina gure arbasoek ehizatzen zuten moduan, alegia. Modu honetara animaliak ihes egiteko aukera gehiago ditu eta ez dira su armekin adina animalia hiltzen. Selektiboagoa da. Duela bi urte basurde bat ehizatu nuen lagun batek Nafarroan duen ehiza esparruan. Animalia bizidun bat 10-15 metrora ikustea eta arku eta geziekin ehizatzea demaseko sentzasioa da.

«Arkutik 220 km/o.ko abiaduran atera daiteke gezia»

XXII. NAHASTE BORRASTE

Nahaste Borraste gaur, 19:00etatik aurrera herriko kaleetan

Nahaste Borraste proba herrikoia-
ren edizio berri bat jokatu da
gaur, hilak 23, herriko kale eta
errepideetan. Partaideak 19:00etan aterako dira Plaza Handitik eta 7 kilometroko ibilbidea egin beharko dute bizikletaz. Ondoren, 25 kiloko zakua bizkarrean hartuta, 400 metro egin beharko dituzte San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar. Antxintxikako probak emango dio amaiera Nahaste Borraste honi. Plaza Handian hasi eta Santa Ana, Trenbide kalea, Madala, San Frantzisko eta Errosario kalea pasa beharko dituzte beriz Plaza Handian bukatzeko. Iaz, Jose Felix Iglesias "Txefe" izan zen irabazlea. Ibilbide honetan Martin Dominguezek 2003an ezarritako errekorretik (18'35") 15 segundura



geratu zen. Emakumezkotan Ainhoa Lendinezek bigarren garaipena eskuratu zuten, 22'40" denborarekin. Kimetz Elkar-

tean eman daiteke izena (943 74 07 37) edo proba hasi baino ordu erdi lehenago Plaza Handian

Lau elgoibartarrek parte hartu zuten Lekeitioko Triatloian



Urgazi Triatloi Taldeko lau kidek parte hartu zuten Lekeitioko Triatloian. Hauetatik, Ainhoa Lendinezek lortu zuen posturik aipagarriena, 23. postuan sailkatu baitzen emakumeen mailan. Amaia Revert 45. postuan sartu zen helmugan. Guztira 52 emakumek parte hartu zuten. Gizonetzkoen mailan, beriz, 324 lagun batu ziren irteeran. Imanol Rodriguez (113. postua) eta Javier Fernandez De la Lama (152. postua) izan ziren Urgaziko ordezkariak. Urgazi berpizteko ahalegina egin dute aurten herriko kirolzale batzuk. Badiarudi, ahalegina hasi dela fruituak ematen. Asteburu honetan Donostiako Triatloia jokatu da eta bertan ere izango da Urgaziko ordezkariak.

Azpeleta, Lariz eta Eizagirre izan ziren irabazleak 90 umek parte hartu zuten II. Tenis Txapelketan

Basarte Elkartek bigarren urtez jarraian antolatu duen Tenis Txapelketan 90 umek parte hartu zuten, joan zen asteburuan, IMH eta Olaizagako tenis-pistetan. Alebin mutilen mailako finalean Tomas Azpeletak 6 eta 0 irabazi zion Ander Gabilondori. Nesken finalean, beriz, Elena Larizek 6

eta 0 gainditu zuen Gorane Ayesta. Azkenik, infantil mailan, Asier Eizagirrek jantzi zuen txapela. Eizagirrek 6 eta 4 hartu zuen mendean Gorka Lizarralde. Antolatzaileak gustura geratu dira txapelketaren bilakaerarekin eta datorren urtean ere beriz antolatze-ko asmoa erakutsi zuten.



QUEBRANTAHUESOS

Iñigo Ortuoste izan zen lehenengo elgoibartarra Quebrantahuesosen



Iñigo Ortuoste izan zen XVI. Quebrantahuesos amaizten lehen elgoibartarra 6:05:45-ko denborarekin. Sabiñanigon (Aragoi) korritu zen txirindulari proba ezagun honetan 7.142 txirindularik parte hartu zuten eta Aitor Kintana profesional ohia izan zen helmugara iristen lehena, 05:58:27-ko denbora eginez. Guztira 34 elgoibartarrek eman zuten izena Quebrantahuesosen, eta horietatik 27k lortu zuten bukatzea. Hona hemen beraien postu eta denborak. Internetetik banan banan atera ditugu parte hartzaileen zerrenda orokorrean oinarrituta. Bakarren bat bidean galdu izana ez da zaila. Hortaz, barkamena eskatzen dizuegu parte hartu eta agertzen ez bazarete.

SAILKAPENA		
Izena	Postua	Denbora
Iñigo Ortuoste	97	6:05:42
Jorge Gonzalez	161	6:13:24
Miguel Correa	269	6:22:28
Jesus Mari Agirretxe	570	6:37:35
Carlos Rodriguez	701	6:42:51
Jose Antonio Ruiz	903	6:48:58
Iñaki Gorosabel	917	6:49:22
Ruben Lopez	943	6:50:05
Alberto Mugica	1105	6:56:31
Javier San Andres	1147	6:57:54
Aitor Loidi	1594	7:12:59
Gorka De La Horra	1198	7:19:32
Alberto Seijas	2041	7:26:36
Oscar Zabala	2641	7:40:54
Iker Kanalaetxeberria	3717	8:12:56
Aitor Aizpiri	4092	8:23:39
Andoni Etxeberria	4276	8:30:04
Ricardo Huidobro	4381	8:34:37
Iosu Mendikute	4435	8:36:57
Iñigo Loiola	4691	8:47:17
Eduardo Arrona	4880	8:55:59
Alberto Agirreazaldeg	5451	9:26:30
Inasio Garmendia	5614	9:38:44
Juan Jose Etxeberria	5649	9:41:23
Jose Manuel Esnal	5676	9:43:41
Josu Etxeberria	5762	9:52:29
Jesus Mari Lertxundi	5851	10:01:01
MENDARORARRAK		
Igor Rey	231	6:20:17
Ignacio Diaz	271	6:22:34
Miguel Angel Urkiza	986	6:52:07
Enekoitz Elorza	2396	7:35:11
Igor Iraolagoitia	2915	7:49:06
Jabier Rubio	3007	7:51:42

150 umek parte hartu zuten Igeriketa Egunean

Argazkian ageri direnak Igeriketa Egunean parte hartu zuten umee-tako batzuk dira. 1992tik 1999. urtera bitartean jaiotako 150 umek parte hartu zuten Elgoibarko Igeriketa Taldeak antolatu zuen Igeriketa Egunean. Olaizaga Kiroldegiko igerilekuak txiki geratu ziren horrenbeste igerilari hartzeko, baina haurrek primeran pasa zuten, ohiko probez gain, jolas mordoia egiteko aukera izan baitzuten.



[EMAITZAK]

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa (Finalaurrekoak)

Lagunak (Arrib./Liz.) 11 - Eskoriatza 22 (Kad)

Eibar 7 - Lagunak (Atxo./Arriz) 22 (Jub)

Aretxabaleta 22 - Lagunak (Ula./Loio) 22 (Nag)

[AGENDA]

ESKU PILOTA Ikastolan

Debarroko Txapelketa (Finalaurrekoak)

Domekia, 25

12:00 Eibar - Lagunak (Jub)

12:45 Lagunak - Aretxabaleta (Nag)

Eskubaloian jokatzeko deialdia

Sanlo Eskubaloia Kirok taldeak teknifikazio ikastaro bat eskainiko du Olaizaga Kiroldegian. Uztailaren 4tik 14ra (astearte, ostegun eta ostirale-tan, goizez) bitartean luzatuko dira klaseak. Hau dela-eta, 1992-1993an jaiotako mutilak eta 1994-1995ean jaiotako neska-mutilak izanez gero, eta eskubaloian jokatzeko interesa eduki, astelehenean, hilaren 26an, 19:00etan Olaizaga Kiroldegian bertan aurkeztu eta Sanloko zuzendaritzako norbaitegatik galde egin.

Zuhaitzak ezagutzeko ikastaroa

Morkaiko M. Eren eskutik gure mendi eta basoetako zuhaitz motak ezagutzeko ikastaroa eskainiko du Aranzadi Zientzi Elkarteko kide batek. Bi egunetan burutuko da ikastaroa: uztailaren 6an klase teorikoa izango da Kultur Etxean (18:30). Bertan, Euskal Herriko basoen ezaugarriak eta zuhaitz adierazgarrienen fitza teknikoak aztertuko dira. Uztailaren 8an, zapatuan, Sallobente inguruetara egingo den mendi irteerarekin emango zaio jarraipena ikastaroari. Izan ere, helburua, era arin batean gure inguruko zuhaitzik adierazgarrienak ezagutu eta identifikatzeko gai izatea da. Morkaikok Errosario kalean duen lokalean eman daiteke izena. Informazio gehiago: www.morkaiko.net helbidean.

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Etxea salgai Errosario kalean. Guztiz berrtua. 168.200 euro.

943 74 84 48/

636 57 11 11

▶ Etxea salgai Urasandin. Berritzeko. 3 logela, egongela sukalde, komuna. **677 772 920**

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.

3 logela, sukalde, komuna eta egongela.

Dena kanpoaldera.

943 03 38 44

686 62 21 92

ALOKAIRUA

▶ Logela bat alokatzen da.

635 20 64 36

▶ Etxea hartuko genuke alokairuan Ibizta edo Mallorkan, uztaila eta abuztuan. **620 049420**

▶ Etxebizitza alokatzen da erdialdean. Pisu berria. Igogailua. Bi logela. **943 20 30 83**

▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **696023933**

▶ Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. **943530162/628299628 (Katherine)**

▶ Luz Saint Sauver-en 4-5 pertsonentzako apartamentua alokatzen da uztaila eta abuztuan. Asteka. **626 453 056**

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garaje itxia alokatzen dut San Roken, Telefonica inguruan.

600 64 84 74

▶ Garajea alokatzen da Pista Beltzean. Kotxea eta motorra kabitzen dira. 55 euro.

659 38 64 03

[AUTOAK]

▶ Fiat Ulises autoa salgai. 97. urtekoa. Merke. **617 03 29 38**

677 43 51 25 (Aitor)

▶ Honda Sky ziklomotora salgai. 536km. 570 euro.

627432361

▶ Ford Focus 1.8 TDDI 90v. autoa salgai. 2002koa. 49.000km.

Irratia, 4CD, airbag, aire girotua, atzeko beirak tindatuak, direkzio lagundua. **649099593**

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.

Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €. Autoak 8 €. Eta bestelakoak 5 €. Astezken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Neska gaztea eskaintzen da udan umeak edo nagusiak zaintzeko. Asteaz. **659 98 08 91/943 743433**

• Emakumea garbiketa lanak egiteko prest. Lokalak, bulegoak, etxeak, elkarteak... Arratsaldez. **639 882 004**

• Bi gizonetako eta emakume bat lanerako prest. **626462140**

• Uztailaren goizez Lehen Hezkuntza 1etik 6ra eta DBH 1 eta 2. mailako klase partikularrak ematen ditut. **943742855**

• Udan klase partikularrak ematen ditut. Lehen eta Bigarren Hezkuntza. **943531054**

• Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanak egin, nagusiak zaindu... **699 60 91 90**

• Kamarera esperientziaduna behar da asteburuetan. **943 12 12 62**

• Neska arduratsua Mendaroko Ospitalean gaixoak zaintzeko prest. Esperientziaduna. **60928606**

• Emakume euskalduna pertsona nagusiak zantzeko prest. Egunez eta gauzez. **943 74 44 33 (Kontxi)**

• Mutila lanerako prest: kamarero, igeltsero laguntzaile... **699 800 498**

• Emakumea lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduz, garbiketa lanak... orduka edo intera moduan. **646235195**

• Neska lanerako prest. Umeak edo nagusiak zainduz, garbiketa lanak... orduka edo intera moduan. **943 53 19 03**

ESKAINZA

• Esperientziadun kamareroa behar da jatetxean lan egiteko. **943 12 12 62**

• Sukaldaria behar da taberna batean pintxoak egiteko. Goizez. **670 250 429**

• Kamareroa behar da. **943 74 16 00**

• Alemaniako herri batean lan egiteko au-pair bat behar da. Bi ume zaintzeko, 2-3 hilabeterako (luzatzeko aukera), berehala hasteko. **943 74 14 61**



• Gipuzkoako enpresak **tomurako langilea eta fresadorea** behar ditu. Erref. 162006008278

• Zarauzko enpresak **galdaragilea** behar du. Erref. 162006008294

• Arrasateko enpresak **sukaldaria** behar du. Erref. 162006008287

• Elgetako enpresak **Industriako manteinu lanerako teknikaria** behar du. Erref. 162006008272

• Bergarako enpresak **sukaldari laguntzailea** behar du. Erref. 162006007928

• Gipuzkoako enpresak **botikaria** behar du. Erref. 162006006875

• Gipuzkoako enpresak **erizaina** behar du. Erref. 162006004711

• Gipuzkoako enpresak **informatika aplikazioen programatzailea** behar du. Erref. 162006007693

• Gipuzkoako enpresak **administratzailea** behar du. Erref. 162006008256

• Gipuzkoako enpresak **informatikako ingeniaria** behar du. Erref. 162006008093

• Azkoitiko enpresak **informatikoa** behar du. Erref. 162006008048

• Azpeitiko enpresak **delineatzailea** behar du. Erref. 162006007961

• Arrasateko enpresak **garbitzaileak** behar ditu. Erref. 162006007936

• Gipuzkoako enpresak **zenbakizko kontroladun tomurako operadorea** behar du. Erref. 162006007604

• Azkoitiko enpresak **kalitate kontrolerako arduraduna** behar du. Erref. 162006006833

• Donostiako enpresak **ingelez irakaslea** behar du. Erref. 162006007601

• Arrasateko enpresak **klinika laguntzailea** behar du. Erref. 162006007511

Hautagai moduan sartzea eskatu nahi baduzu **901222901** telefonora deitu edo 'langai'-k Elgoibarren dituen zentzura deitu: **IMH (Nora Ramón) 943 74 41 32** telefonora.

ABISUAK

• Karitasek kotxe kapota, kotxetila, sehaska eta josteko makina behar ditu.

943 74 15 09

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Eñaut** hilaren 27an 6 urte beteko dituzulako. Familiako eta bere-anaia Haritzen partez.



▶ Zorionak **Eneko** zure 6. urtebetetzean. Familiako eta bereziki, arreba Iraitzen partez.



▶ Zorionak **Sara** gaur 8 urte egin dituzulako. Familiako eta Mariaren partez.



▶ Zorionak etxeko **sorgintxoari** bere 1. urtebetetzean. Familiako partez.



▶ Zorionak **Ainhoa** Elgoibarko familiako partez, bereziki, Jone eta Nahiaren partez.




▶ Zorionak **txapeldun** zure 7. urtebetetzean. Guraso eta anai Ikerren partez, muxu handi bat.



▶ Zorionak **Mikel** zure familiako partez. Jarraitu txintxo-txintxo!



▶ Zorionak **Maider** ekainaren 20an 4 urte egin zenuelako. Aitaxori ere zorionak. Ander eta amatxo.



▶ Zorionak **Eneko** hilaren 14an urte bat egin zenuelako. Amama Petri, izebak eta Reneren partez.



▶ Zuen eguna ere iritsi da **Txubito** eta **Aintzane**. San Joan egunean hasiko da pizten zuen arteko sua. Aintzane eta Leireren partez.

uztaila ostiraleko

Uztailak 7	Uztailak 14	Uztailak 21
 <p>PAINTBALL (Debaventura) Irten: 10:00etan Itzuli: 18:00etan Prezioa: 20 €</p>	 <p>KANOA eta SURFA (Urdaibai) Irten: 08:00etan Itzuli: 20:30ean Prezioa: 50 €</p>	 <p>BEIGORRI ABENTURA PARKEA (Lekunberri) Irten: 10:00etan Itzuli: 18:00etan Prezioa: 20 €</p>

3 ekintzetan izena emanez gero, **50€** besterik ez dira ordaindu behar!

IZEN-EMATEA:

- Diru-sarrera kontu honetan egin behar da: KUTXA 2101 0036 65 0124148470
- KUTXAko ordainagiria, izen-emate orriarekin batera, Elgoibarko Izarrara ekarri behar da Elgoibarko Izarra. Ubitarte plaza 4.
- Matrikula ordaindu ondoren atzera egiten duenari, ordaindutakoaren %80a bueltatuko zaio, arrazoitutako kasuetan.
- Informazio gehiago: 943 74 16 26 (Nagore) eta nagore@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikoan.

Antolatzaileak:  

Laguntzaileak:   

[OKINDEGIA]



25 igandea BOLINTXO



[FARMAZIAK]

GUARDIA 24 ORDUZ

23	Ibañez
24	Bidasolo
25	Bidasolo
26	Etxeberria (Santa Ana)
27	Fernandez
28	Yudego
29	Fernandez
30	Etxeberria (Errosario)

* Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.

KANPOKO FARMAZIAK

IBAÑEZ
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38
FERNANDEZ
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42
ZABALETA
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84



[TELEFONOAK]

OSASUNA

Anbulatorioa	943 03 26 10
Larrialdiak	943 46 11 11
Planning-a	943 74 29 50
Alkoholiko Anonimoak	943 74 03 85
D.YA (anbulantzia)	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 74 38 64
Mendaroko Ospitalea	943 03 28 00
Odol Emaileak	943 74 39 36

UDALA

Euskara Zerbitzua	943 74 43 66
Kultura Zerbitzua	943 74 21 58
Hirigintza	943 74 43 84
Epaitegia	943 74 16 30
Haziena	943 74 44 14
Mendaroko Udala	943 03 32 82
Ongizate zerbitzua	943 74 10 08
Udaletxea	943 74 10 50
Udaltzaingoa	943 74 13 94
Debemen	943 74 40 67

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.	943 74 04 42
PESA (Eibar)	902 10 12 10
Taxi geltokia	943 74 08 98
Bizkaibus	902 222 265

BESTELAKOAK

BARREN astekaria	943 74 41 12
Elgoibarko Izarra	943 74 16 26
Kiroldegia	943 74 44 15
Kontsumo Bulegoa	943 74 30 88
Liburutegia	943 74 35 25
Musika Eskola	943 74 21 45
Mintxeta	943 74 43 15
Parrokia	943 74 08 42
Postetxea	943 74 15 47
Gazte Informazioa	943 74 14 61
KZ gunea	943 74 88 28

ADINEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza	943 74 02 96
Zaharren Biltokia	943 74 05 26
Eguneko Zentroa	943 74 45 65

IKASTETXEAK

Haur Eskola	943 74 21 41
HHI (EPA)	943 74 08 80
Herri Eskola	943 74 08 79
LMH.	943 74 41 32
Institutua • Arreiturre	943 74 80 19
•Ezenarro (Meka)	943 74 80 19
Ikastola	943 74 44 41
Pilar Ikastetxea	943 74 13 31



[AUTOBUSAK]

ELGOIBAR - DONOSTIA

Astegunak:
7:10, 7:40, 8:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 14:40, 15:00, 15:40, 16:00, 18:40, 19:05, 20:00, 20:40

Larunbatak:
7:10, 9:00, 10:40, 13:40, 14:00, 15:00, 18:40, 20:00

Igandeak eta jaiegunak:
9:40, 10:30, 13:40, 18:40, 20:00, 20:40

Pesa: 902 10 12 10

DONOSTIA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:15, 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 14:30, 15:00, 17:30, 18:30, 19:30, 20:45.

Larunbatak:
8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45

Igandeak eta jaiegunak:
12:30, 17:30, 19:30, 20:45.

PESA: 902 10 12 10

ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA

Astegunak:
6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.

Asteburuak eta jaiegunak:
7:15ean hasita, orduka. Azkena; 20:15.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR

Astegunak:
6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.

Asteburu eta jaiegunak:
7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.

EUSKOTREN: 943 74 04 42

LARUNBAT GAUEKO ZERBITZUAK

EUSKOTREN: 943 74 04 42

ELGOIBAR-DEBA

1:05, 2:35, 4:35, 6:05

DEBA-ELGOIBAR

12:10, 1:55, 3:40, 5:25

ELGOIBAR-EIBAR

12:25, 2:10, 3:55, 5:40

EIBAR-ELGOIBAR

1:00, 2:30, 4:30, 6:00

[23 BARIKAKUA]

10:00 "KALEAN IRAKURRI"

EGITASMOA

Antzerkia, jolasak, trikilaria, e.a. egun osoan zehar
Antolatzailea: Udal Liburutegia eta Eusko Jaurlaritza

19:00 NAHASTE BORRASTE

Irteera: Plaza Handian
Antolatzailea: Kimetz Elkarte

19:45 LAGUNAK PILOTA

TXAPELKETAKO FINALAK

Plaza Handian
Antolatzailea: Lagunak Pilota Eskola

21:00 PILOTA JAIALDIA

MENDARON

Goñati Pilotalekuan
Jubenil mailako jaialdia
Partidak:
Txurruka - Errazki
Iragi - Etxeberria
Joldi - Fernandez

[25 DOMEKIA]

12:30 UDAL MUSIKA

BANDAREN KONTZERTUA

Herriko Antzokian
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro
Egitaraua: "Bellas Artes" (A. Nieto); "Oberon" (C.M. Weber); "Memorias de Africa" (J. Barry); "Marcha Turca" (W.A. Mozart); "Jesus Christ Super Star" (L. Webber).

[27 MARTITZENA]

22:15 ANTZERKIA

Antzezlan: "Ser o no ser invisible"
Taldea: Enfasis Antzerki Taldea
Herriko Antzokian
Sarrera: 3 euro
Antolatzailea: Biluzik Sexologia Zerbitzua

ALTZOLAKO SAN JOAN JAIK 2006

Ekainak 23 (Barixakua)

- 14:30 Txapliguak eta kanpai jotzea
- 19:00 Meza Santua eta Salbea; santuari festetako zapia jartzea
- 20:00 San Joan arbola jartzea (Trikitilariekin)
- 22:30 San Joan sua errekan
- 23:00 "Eclipse" taldeak alaitutako dantzaldia

Ekainak 24 (Zapatua)

- 06:00 Herriko portaletan San Joan adarrak jartzea
- 11:00 Prozesioa eta Meza Santua, Elgoibarko Parrokiko koroak lagunduta

Ondoren, Herri Kirolak

- 15:30 Mus Txapelketa. Zubia Erretegian
- 19:00 Ustekabe handia
- 22:00 "Eclipse" taldearekin dantzaldia

Ekainak 25 (Domekia)

- 12:30 Poteo Indartxua (Trikitilariekin)
- 14:30 Herri Bazkaria
- 17:30 Umeentzako jolasak Atxutxiamaiika Taldearekin
- 19:00 Zezentxo eta poniak
- 21:30 "Eclipse" taldeak alaitutako dantzaldia

SAN PEDRO BAILARAKO JAIK 2006

Ekainak 28 (Eguaztena)

- 19:00 Kanpai jotzea eta txapligu jaurtiketa
- 21:00 Auzotarren afaria

Ekainak 29 (Eguena)

- 11:00 Meza Nagusia
- Ondoren, Saizar, Zahatzu eta Amuetak eskainitako luntxa
- 14:30 Auzotarren eta jubilatuen bazkaria
- Egun guztian zehar "Elustondo anai-arrebak" trikitilariak

Uztailak 1 (Zapatua)

- 16:00 Manu Alvarezen omenezko III. Motokros proba
- 21:00 Bertso afaria. Sebastian Lizaso eta Angel M. Peñagarikanorekin

Ondoren, Gaupasa Gardoki taldearekin eta eguna amaitzean txokolatada

Uztailak 2 (Domekia)

- 10:30 Meza
- 12:00 Goenatxo aita eta semea harrijasotzen
- 14:00 Auzotarren bazkaria
- 17:30 Idi-Demak "San Pedro Saria"

Parte hartzaileak: Eibarko Agarre-Azpikua; Aizamazabalgo Etxabe eta Usurbilgo Bizkarre

ZINE KARTELDEGIA

ELGOIBAR PLAZA HANDIAN

- «El Codigo Da Vinci»
30, barixakua: 22:30
- «Las Cronicas de Narnia»
1, zapatua: 22:30

EIBAR, UNZAGA

- «Scary Movie 4»
24, zapatua: 17:00-19:30-22:15
25, domekia: 17:00-19:30-22:15
26, astelehena: 19:30-22:15
27, martitena: 19:30-22:15
28, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIALTO

- «Vecinos Invasores»
23, barixakua: 19:30
24, zapatua: 17:00-19:30
25, domekia: 17:00-19:30
26, astelehena: 19:30-22:15
- «Novia por contrato»
23, barixakua: 22:15
24, zapatua: 22:15
25, domekia: 22:15

BARRENEK ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketan erantzukizunik.

[28 EGUAZTENA]

19:30 HITZALDIA

Gaia: Lurraren legea eta Babes Ofizialeko Etxeak Elgoibarren Hizlariak: Oscar Matute (Iuko legebiltzarkidea) eta Ricardo Ortega (Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza delegatua)
Ondoren galderak egiteko aukera izango da Kultur Etxeko Hitzaldi gelan

[30 BARIXAKUA]

22:00 BIDEO-FORUM-A

Filmea: "Cold Mountain"
Hizlaria: Eskame Larrinaga Kultur Etxean
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

Atzera hegira



1966. urteko erretratu hau **Mila Osorok** laga digu. Trinitate Jaietan Santa Klarako eskolako patioan aterata dago. Eskolako ikasle talde bat ageri da bertan, soinu jotzaile eta guzti, jaiak ospatzen. Ordu hartan ere, giro onean ospatzen ziren Trinitateak. Aurtengo jaiak, aspaldian izan ditugun handienak izan dira, tanborrada beriz berpiztu dela dirudi. Herritar guztiak oso gustura gertatu dira aurtengo jaiekin. Gogora ditzagun zein diren argazkian agertzen diren neskatila polit hauek: Goian, ezkerretik eskumara: **Arantza Bilbao** (soinuarekin), **Koro Fernandez**, **M^a Sol Perez**, **Reyes Sanz** eta **Mila Arano**. Bigarren ilaran: **Rosario Azpillaga**, **Monse Egaña**, **Mila Osoro** eta **Mari Fer Aizpitarte**. Beheko ilaran: **Kontxi San Millan** (), **Kamele Agirre** eta **Lourdes Galarraga**.



ESKERTZA

2006ko ekainaren 15ean, 87 urte zituela hil zen **Constancio Alonso Vega "Palencia"**ren sendiak, bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



II. URTEURRENA

2004ko ekainaren 19an, 52 urte zituela hil zen **Jose Luis Soraluze Lizundia**ren oroimenez urteurreneko meza izango da, larunbatean, ekainak 24, arratsaldeko 19:00etan Parrokian. Joango zaretanoi eskerrak aldeztu aurretik.



Iraileko EGA azterketa

Eskolak
uztailean
edo **irailean**

Langabetuek, gurasoek eta ikasleek
matrikula erdia,
udalaren laguntzaz

Matrikulatzeko epea **ekainaren 29** arte

aek Euskaltegia

Plaza Txikia, 3 • Tel.: 943 74 13 32 • elgoibar@aeknet.net

Helmuga Euskara!



aek
zure bidelaguna

Alzolako Urak, bezero eta bizilagunei
San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue.

Jai zoriontsuak

www.Alzola.com





**Eguneroko ezusteez ez
dezaten atzerapenik
ezta produktibotasun
galerarik sortu...**

HIRULAN

**Enpreseei Zuzenduriko Informatika
Informatica para Empresas**

Olasope kalea, 3 - 20870 Elgoibar

Tel.: 943 25 46 55

E-maila: hirulan@hirulan.es

hirulan